# DEBA ETA HARRIA

# DEBA Y LA PIEDRA



*Arronamendiko kantera, 1925 aldian - Cantera de Arronamendi, hacia 1.925*



Mendeetan, udalerriko familia askoren bizimodua eta ogibidea harria ateratzea izan da.

Asko izan dira historian zehar Deban ustiatu izan diren harrobiak. Gehienak kareharrizkoak izan dira; baina, bere garaian oso garrantzitsuak izan ziren, baita ere, kare hareharrien harrobiak, galtzadarriak egiteko erabiltzen zirenak.

Debako kareharria hain estimatua izan denez, herriaren izena eman zitzaion hamar marmol ezagunenetako bati: *"Gris Deba" (Debako grisa).* Marmol hori Lasturreko harrobietatik ateratzen da, beste hainbat bezala: *Gris Duquesa (Dukesa grisa)*, *Rosa Duquesa (Dukesa arrosa)*, *Rosa Deba (Debako arrosa), Rosa Estrella (Izar arrosa), Gris Paloma (Uso grisa), Sangre de Toro (Zezenaren odola), Brecha Estrella (Bretxa izarduna) edo Albigrisa*.

*Debako grisa* esaten zaion kareharria eraikin ezagun asko eraikitzeko erabili izan da. Halako kareharriak koralezko arrezife zaharretan eratu ziren, duela 100 milioi urte baino gehiago. Horien barruan, koral, alga eta organismo bioeraikitzaileen adibide bikainak ikus ditzakegu.

1948an, Francisco Albizu "Soarte" herriko hargina kontratatu zuten diamante puntaren forma zuten 7000 harri prestatu zitzan, Arantzazuko Andre Mariaren Santutegiko dorreak eraikitzeko. Soarte-k eskuz prestatu zituen harriak Lasturreko Urkullu harrobitik atera ziren.

Baina, kareharria ez da izan gure harrobietatik atera den harri mota bakarra.

Hogeigarren mendeko berrogeita hamarreko hamarkada arte Euskal Kostaldeko Geoparkeko itsaslabarretan zeuden Arronamendiko harrobietan kare hareharrien harrobiak ustiatzen zituzten sei enpresa egon ziren, guztiak galtzadarriak egiten zituztenak. Esaten denez, XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadan zehar ehun pertsona ere artitu ziren Arronamendiko harrobietan.

Galtzadarriak harriak eskuz landuz egiten ziren harrobian, trenbideko bagoietan kargatzen ziren zamalekuan bertan eta hainbat lekutara garraiatzen ziren: Asturias, Kantabria, Katalunia edo Gaztela. Normalean, harginek beraiek arduratzen ziren kale, plaza, portu edo probalekuetako obrak egiteaz, eta, obrek irauten zuten bitartean, inguruan bizitzen ziren. Arronamendiko harrobietan pertsonaia ezagunek egin zuten lan; esaterako, Txirrita bertsolariak.

Harrobitik gertu dagoen Arakistain plazan, Debako harriaz eginiko galtzadarrizko zoladura ikus daiteke, eta baita Euskal Herriko ornamentuzko hainbat harri ere.

Debako harriari esker, gainera, herri kiroletako hainbat harrijasotzaile historiko bihurtu dira. Gizonezkoen artean, Victor Zabala (Arteondo), Manuel Arakistain (Ziaran Zar), Angel Albizu (Soarte) eta Jose Manuel Agirre (Endañeta) ditugu; emakumezkoen artean, berriz, Damasa Agirregabiria dugu, XX. mendeko hogeita hamargarren hamarkadako emakume harrijasotzaile ezaguna.



*Gris Deba*



*Rosa Deba*



*Sangre de Toro*



*Brecha Estrella*



*Albigrís*

Durante siglos, la extracción de la piedra ha representado el modo de vida y el sustento de numerosas familias del municipio.

Muchas han sido las canteras que a lo largo de la historia han sido explotadas en Deba. Aunque la mayoría son de piedra caliza, también tuvieron en su momento una gran importancia las de piedra arenisca calcárea, utilizada ésta para la elaboración de adoquines.

La piedra caliza debarra ha sido tan apreciada, que la población incluso prestó su nombre a uno de los diez mármoles más conocidos: el *"Gris Deba".* Este mármol, al igual que otros como el *Gris Duquesa*, *Rosa Duquesa*, *Rosa Deba, Rosa Estrella, Gris Paloma, Sangre de Toro, Brecha Estrella o Albigrís*, son extraídos de las canteras de Lastur.

La caliza conocida como *Gris Deba* ha sido utilizada en la construcción de numerosos y conocidos edificios. Estas calizas se formaron en antiguos arrecifes de coral hace más de 100 millones de años. En su interior podemos apreciar excelentes ejemplos de corales, algas y organismos bioconstructores.

En 1948, el cantero local Francisco Albizu "Soarte" fue contratado para elaborar y suministrar 7000 piedras en forma de punta de diamante para la edificación de las torres del Santuario de Nuestra Señora de Arantzazu. Las piedras elaboradas por "Soarte" de forma artesanal fueron extraídas de la cantera Urkullu de Lastur.

Pero la caliza no ha sido la única piedra extraída de nuestras canteras.

Hasta los años cincuenta del siglo veinte, las ya desaparecidas canteras de Arronamendi, situadas en los acantilados costeros del Geoparque de la Costa Vasca, albergaron hasta seis empresas explotadoras de piedra arenisca calcárea destinada a la elaboración de adoquines. Según se dice, durante los años treinta del siglo XX, en la cantera de Arronamendi trabajaron hasta cien personas.



*Arantzazuko santutegia - Santuario de Arantzazu*



*Ziaran Zar*

La labra de los adoquines era realizada artesanalmente en la cantera y posteriormente estos eran cargados en vagones de ferrocarril en su propio cargadero, con destino a diversos lugares como Asturias, Cantabria, Cataluña o Castilla. Generalmente, los propios canteros eran los encargados de realizar la obra de calles, plazas, puertos o carrejos, residiendo éstos en diversos lugares durante el tiempo que durasen las obras. En las canteras de Arronamendi trabajaron populares personajes como el conocido bertsolari Txirrita.

En la cercana plaza Arakistain, puede contemplarse el adoquinado con piedra debarra, así como muestras de diversas piedras ornamentales de Euskal Herria.

La piedra debarra ha sido también el elemento por el que han pasado a la historia del deporte rural nombres de harrijasotzailes (levantadores de piedra) como Victor Zabala (Arteondo), Manuel Arakistain (Ziaran Zar), Angel Albizu (Soarte), José Manuel Agirre (Endañeta), o incluso mujeres como Dámasa Agirregabiria, popular fémina harrijasotzaile durante los años treinta del siglo XX.

*Informazio gehiago*
*Para más información:*

